

Euskarazko izen arrunten proposamena Eurasiako  
27 txori espezierentzat

*Europako hegaztien zerrenda osatzeko proposamenak*



**EUSKAL  
BATZORDE ORNITOLOGIKOA  
COMITÉ ORNITOLÓGICO  
DE EUSKADI**

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,  
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur  
2024ko maiatzean  
Euskal Batzorde Ornitologikoa

# Izen arrunten proposamena Eurasiako 27 txori espezierentzat

## Europako hegaztien zerrenda osatzeko proposamenak

Europan inoiz ikusi diren hegazti guztien izendegia osatzeko bidean azkenaldian egiten ari garen lanaren jarraipena da ondorengoa. Beste 27 espezierentzat proposamena aurkezten dugu txosten honetan.

Izenak proposatzeko orduan “*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak*” dokumentuan zehazten direnak jarraitu ditugu.

### Ez-paseriformeak

- *Bucorvus abyssinicus* (Bucerotiformes, Bucorvidae) - **kalao abisiniar** ('kalao' generikotik abiatuta eta, espezifikatzailea zehazteko orduan, inguruko hizkuntza gehienen antzera, ezaugarri fisiko deskriptiboen faltan, izen zientifikoa abiapuntutzat hartuta)
- *Apus unicolor* (Caprimulgiformes, Apodidae) - **sorbeltz kolorebakar** (izen zientifikoa eta inguruko hizkuntzen irizpide berberak jarraituta)
- *Numida meleagris* (Galliformes, Numididae) - **pintada arrunt** (Euskaltermek 'pintada' dakar; ezaugarri deskriptiko espezifikoen faltan, 'arrunt' espezifikatzailea gehitu diogu familiako gainontzeko 7 espezieetatik bereizteko, familia honetako kiderik arruntena delako askogatik, Afrikan oso zabaldua dagoena eta Europen ere ezagunena zalantzarik gabe)
- *Musophaga violacea* (Musophagiformes, Musophagidae) - **turako bioleta** ('turako' generikoa hobetsita eta espezifikatzailearentzatko izen zientifikoa jarraituta, inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe)
- *Crinifer piscator* (Musophagiformes, Musophagidae) - **mendebaldeko turako gris** (inguruko hizkuntzen antzera; 'turako mokohori' ere izan zitekeen, izen binomiala hobetsi nahi badugu)
- *Ardea melanocephala* (Pelecaniformes, Ardeidae) - **koartza burubeltz** (izen zientifikoa eta nazioartean ere halaxe izendatzen da; euskarazko Wikipedian ere horrelaxe dago izendatuta)
- *Egretta tricolor* (Pelecaniformes, Ardeidae) - **koartzatxo hirukolore** (nazioarteko koherentzia interlinguistikotik abiatuta, inguruko hizkuntza guztiek izen zientifikoa hartu baituta abiapuntu gisa, espezie honek ez daukalako ezaugarri fisiko deskriptibo nabarmenik)
- *Vanellus armatus* (Charadriiformes, Charadriidae) - **hegabera pinto** (ezaugarri deskriptiboetan oinarrituta, hegaberen artean berezia delako bere kolore-molde pinto edo zuri-beltza)
- *Dromas ardeola* (Charadriiformes, Dromadidae) - **dromas karramarrozale** (familia eta generoko espezie bakarra izanik, dromas generikoa proposatzen dugu, inguruko hainbat

hizkuntzatan bezala; espezifikatzailea, berriz, izen zientifikotik abiatuta. Hala ere, 'dromas' hutsa ere izan zitekeen, espezifikatzailerik gabe; baita "txirri karramarrozale" ere)

- *Scopus umbretta* (Pelecaniformes, Scopidae) - **mailuburu** (espezie honek bi izen ditu euskaraz, 'mailuburu' eta 'mailu-txori'; dokumentazioa eta hiztegiak aztertuta, lehenengoa aukeratu dugu izen arrunt nagusi gisa. Familia honetako kide bakarra izanik ez du espezifikatzailerik behar)
- *Eudocimus albus* (Pelecaniformes, Threskiornithidae) - **ibis zuri** (inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe)
- *Eudocimus ruber* (Pelecaniformes, Threskiornithidae) - **ibis gorritza** (inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe; Euskaltermen azaltzen da)
- *Bostrychia hagedash* (Pelecaniformes, Threskiornithidae) - **hadada ibis** (izen onomatopeikoa eta tokiko hizkuntzan erabiltzen omen dena; inguruko hizkuntza guztiek hartu dute bide berbera, izen zientifikoan ere adierazten dena)
- *Strix mauritanica* (Strigiformes, Strigidae) - **urubi magrebtar** (inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe)

## Paseriformeak

- *Perisoreus infaustus* (Corvidae) - **eskinoso siberiar** (inguruko zenbait hizkuntzen antzera, 'Siberian jay')
- *Pica mauritanica* (Corvidae) - **mika magrebtar** (inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe)
- *Amandava subflava* (Estrildidae) - **amandava bekaingorri** (inguruko hizkuntzen eredu nagusia 'amandava zebra' litzateke, baina txori hau ez da zuri-beltza eta beste ezaugarri fisiko bat hobetsi dugu: bere bekain gorria)
- *Anthus rubescens* (Motacillidae) - **txirta amerikar** (inguruko hizkuntza gehien antzera, ezaugarri fisikoen faltan espezifikatzaile geografiko bat erabiliz)
- *Pycnonotus* generoko (Pycnonotidae) 5 espezierentzat proposamenak. Familia honetan 33 genero eta 171 espezie daude. Tamaina ertainekoak dira eta kolore aldetik gehienak antzekoak, arre-berdexkak. Inguruko hizkuntza gehienetan 'bulbul' generikoa erabiltzen da talde honentzat, arabieratik hartutako izena. Guk ere halaxe honetsi dugu. *Pycnonotus* generoan 35 espezie daude, batez ere Afrikan eta Asia hegoaldean (India, Indotxina Indonesia...) bizi direnak. eBird datu-basearen arabera Europan inoiz behatu izan diren espezieen artean ondorengoak ditugu (horietako 3 Iberiar penintsulan bertan):
  - *Pycnonotus jocosus* - **bulbul masailgorri** (inguruko hizkuntza gehienetan bezalaxe)
  - *Pycnonotus leucotis* - **bulbul belarrizuri** (inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe)
  - *Pycnonotus barbatus* - **bulbul arrunt** (ezaugarri morfologiko bereizgarririk gabea, hauxe da Afrikako espezieen artean ugariena eta Europan ere gehien ikusi izan dena; ingelesez ere 'common' deitzen dute, Europako beste zenbait hizkuntzatan bezalaxe, besteak beste galizieraz eta katalanez)
  - *Pycnonotus aurigaster* - **bulbul urre-ipurdi** (inguruko hizkuntza gehien antzera)
  - *Pycnonotus cafer* - **bulbul ipurgorri** (inguruko hizkuntza gehien antzera)

- *Regulus maderiensis* (Regulidae) - **Madeirako erregetxo** (inguruko hizkuntza guztietan bezalaxe)
- *Phylloscopus orientalis* (Phylloscopidae) - **txio oriental** (inguruko hizkuntza guztietan eta izen zientifikoan bezalaxe)
- *Acridotheres cristatellus* (Sturnidae) - **hartxori gandordun** (Euskaltermen “gangardun” dator, baina euskara batuko forma estandarra hobetsi dugu)
- *Acridotheres tristis* (Sturnidae) - **hartxori triste** (Euskaltermen agertzen da, izen zientifikotik abiatuta)

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa).

## **Euskal Batzorde Ornitologikoa**